

- Zenbat eta nola ordaintzeko prest dago zuen bezeroa eskaintzen ari zareten produktuaren edo zerbitzuaren truke?

Gure lankideak soldata finkoak edukiko dituzte hileror. Alde batetik, informatikari bat kontratatuko ditugu webgune bat sortzeko, baina hura behin-betiko 1000€-ko ordainketa izango da. Bestetik, administratzaile bat kontratatuko dugu, administrazio kontuak eramateko, horren truke, 1700€-ko soldata bat jasoko du. Halaber, soldata hauek finkoak izango dira, baina gure enpresa handitu heinean eta diru-sarrerak gehiago eduki ahala, soldatak igo egingo dira. Bestalde, hainbat kostu finko izango ditugu, hala nola, lokalaren alokairua eta wifi-a.

Lokalaren alokairuaren aldetik, argia eta ura kostua barne dago. Horrez gain, 170€-ko alokairua izango dugu. Wifi-aren aldetik, 20€ soilik inbertituko ditugu.

Publizitatea momentu finko batzuetan egingo dugu, bereziki hasieran, geure enpresa ezagutarazteko. Horretarako, marketing enpresa bat kontratatuko dugu. Adibidez, [elements digital](#) eta [Expiey](#). Marketing-en aldetik, enpresarik onena Expiey da, honek 5 marketing kanpaina egin du. Gainera, Expiey ere, webgune bat egiteko zerbitzua ere ematen du. Hau guztia, 2000€ kobratzen dute. Elements digitalen aldetik, sare sozialetik publizitatea egitea oinarritzen da, nahiz eta bakarrik sare sozialetan publizitate bakarra egin, hainbat kritika onak jaso ditu, honek 1000€ kostatzen ditu.

GASTUAK:	BEHARKO IZANGO DUGUN DIRUA
- lokalaren alokairua - wifi - langileak: - Informatikari - Administratzaile/kontablea - Publizitatea egiteko - Administrazio kontuak	- 170€/hilean - 20€ hileror gutxi gora behera - 1000€ (informatikaria) - 1700€ hileror (administratzaileari)

Dirua enpresa handiek ezinduentzako bideratuta dituzten fondoetatik atera dezakegu. Alde batetik, hainbat erakunde desberdinek ezinduen bizitza hobetzeko inbertsioak egiten dituzten, beraz, inbertsio horiek aprobetxatu ahalko genituzke. Honako enpresen laguntzak jaso ahalko genituzke:





Bestalde, gure zerbitzuak hainbat enpresei eskaini ahal dizkiegu, indarreko legedia betetzeko langile guztien %2k izan behar du ezintasun bat, isun eta zehapenen eraginpean ez jartzeko.

Diputazioak eskaintzen dituen diru laguntzetatik ere lortu ahal dezakegu dirua. Laguntza hauek gizartearen inklusioa aurrera eramateko izaten dira, eta gure enpresak [BOBko 10.zenbakiko, 2023aren urtarrilaren 16an idatzitako 31. orrian](#) ikusitakoarekin laguntza horiek eskatu ahalko lituzke. Honekin 304.167,00€ lortuko ditugula espero dugu.

Eskubide Sozialen Ministerioak eta Agenda 2030ek eta beste administrazio publiko batzuek dirulaguntzak eskaintzen dituzte ezintasun duten pertsonak gizartearen integratzea sustatzen duten sentsibilizazio-proiektuetarako. Kolektibo horren laneratzea sustatzeko SEPEren dirulaguntzak ere eskura daitezke.

DIRU-SARRERAK	EHUNEKOAK
Enpresen bidez Donazioen bidez Diru laguntzen bidez	Enpresen diru-sarreraren <u>%20</u> Donazioak <u>%10</u> Publikoak (udal, foru, estatua) eta pribatuko laguntzak. <u>%70</u>